

XEDAPEN OROKORRAK

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

3925

ERABAKIA, 2012ko uztailaren 19koa, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak bileran hartutakoa, Zuzenbide Fakultatearen Arautegia onartzeko dena.

2012ko otsailaren 23ko Erabakiaren bidez, Euskal Herriko Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak ikastegietarako arautegi markoa onetsi zuen, Gobernu Kontseiluaren 2011ko ekainaren 23an onetsitako garapen-arautegia berrikusteko egutegia beteaz.

Arautegi marko hori oinarritzeko arautegi gisa eratu da. Beraz, sailek horren gaineko alderdien inguruan arautu beharrekoaz erabaki dezakete, modu horretara, zeinek bere antolamendu autonomia bermatuz.

Ikastegien arautegi markoaren bigarren xedapen iragankorrek sei hilaren epea ematen zuen, indarrean sartu zen egunetik hasita, ikastegiak bertan adierazitakora ekarri eta molda zitzaten tokian tokiko arautegiak.

Zuzenbide Fakultateak, arautegi honen babesera etorrira, onartu egin zuen ikastegi batzarrak 2012ko uztailaren 12an egindako bileran bertako arautegiaren arautegi marko berrirako egokitzapena.

Hori guztia kontuan hartuta, eta ikusita idazkari nagusiaren proposamena, Gobernu Kontseiluak honako hau

ERABAKITZEN DU:

Lehenengoa.– Zuzenbide Fakultatearen arautegia onartzea.

Bigarrena.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agindua ematea.

Hirugarrena.– Zuzenbide Fakultatearen arautegia argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Leioa, 2012ko uztailaren 19a.

Errektorea,
IÑAKI GOIRIZELAIA ORDORIKA.

Idazkari nagusia,
EVA FERREIRA GARCÍA.

ERANSKINA

UPV/EHUREN ZUZENBIDE FAKULTATEAREN ARAUTEGIA

1. artikulua.– Ikastegien oinarrizko arautegiko 7. artikuluekiko komunztadura.

1.– Zuzenbide fakultateak, Gipuzkoako campusean, Donostiako Lardizabal pasealekuko 2an egoitza duelarik, atal bat dauka Bizkaiko campusean, kokapena Leioan duena (Sarriena auzoa, z/g; 48940 Bizkaia).

2.– Ataleko dekanorde koordinatzailea, bertan adskribituriko irakasle izan beharko duena, errektoreak izendatuko du, dekanok proposatuta eta ataleko batzarra entzunda.

3.– Fakultateko aurrekontuetan bereizita agertuko dira Bizkaiko atalari dagozkion partidak. Atalak bere eginen ditu tramite administratiboak eta aurrekontu gestioak, baldin eta fakultateko batzarrak eta campuseko errektoreordetzak horretarako baimena eman badute.

4.– Bizkaiko ataleko batzarra 15 kidek osatuko dute: 9 irakasle eta ikertzaile, Bizkaiko atalari adskribiturikoak, gainontzeko PIIko kide bat, Bizkaiko atalari adskribiturikoa, 3 ikasle, Bizkaiko atalean matrikulatutakoak, eta administrazio eta zerbitzuetako pertsonaleko bi ordezkari, hauek ere Bizkaiko atalari adskribiturikoak.

5.– Bizkaiko ataleko batzarraren funtzionamendua honako arau hauei lotuko zaie:

a) Ataleko batzarreko kideak hautatzeko bete egin beharko da estatutuek xedatutakoa eta UPV/EHUko Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorrean zehaztutako prozedura, organo bilduen hautatzeari dagokionez. Ahaleginak egingo dira, ahal den heinean, ataleko batzarrerako hauteskundeak fakultate batzarrerako hauteskundearen data berean egin daitezen.

b) Ataleko batzarreko kide hautetsien agintaldia fakultateko batzarkideenaren luzera berekoa izango da.

c) Ataleko batzarkidearen izaera, fakultateko batzarkidearen izaeraren galtzea eragiten duten kausa berberengatik galduko da, hauei Bizkaiko atalari adskribiturik edo matrikulaturik egoteari uztea gehituta.

d) Ataleko batzarraren gainerako alderdi guztiak fakultate batzarraren funtzionamendurako arau berberei lotuko zaizkie.

6.– Bizkaiko ataleko batzarrak honako eskumen hauek izango ditu:

a) Dekanoak ataleko dekanorde koordinatzailea izendatzeko proposamena informatzea.

b) Atalaren urteko aurrekontu dotazioa proposatu eta gestionatzea.

c) Dekanorde koordinatzaileari bere eskumeneko gaietan laguntzea eta aholkua ematea.

d) Ataleko dekanorde koordinatzailearen proposamenez, atalaren lokal orokor edo espezifikoak erabiltzeko arauak onartzea.

e) Irakasleen eta ikasleen ordezkariak, azken hau ikastegiko ikasleen kontseiluak proposatuta, izendatzea Bizkaiko Campuseko Batzarrerako.

f) Irakasleen kontratazioaz egindako atalaren premien memoriaz iritzia ematea.

g) Fakultate batzarrari Bizkaian titulu propio eta masterren eskaintzarik egiteko proposatzea.

h) Ikastaldearen gestioa (ikasleak taldetan banatu eta beste). Eginkizun hau era koordinatuan egingo da campus biotan, beti ere unibertsitateak eta ikastegiak ezarritako irizpide orokorrak aintzat hartuta.

i) Aukera askeko kredituak onartzea.

j) Fakultate batzarrari akademi ikasturte bakoitzean Bizkaiko atalean ezarri beharreko numerus clausus edo plaza mugaketa proposatzea.

k) Fakultateko Batzarrak eskuordetzen dizkion gainerako guztiak.

2. artikulua.– Ikastegien arautegi markoaren 9.2 artikuluekiko komunztadura.

2.– Ikastegiko Batzarrak 50 kide hautetsi izango ditu era honetara banatuta unibertsitate sektoreen arabera:

Unibertsitatearekiko lotura iraunkorra duen pertsonal irakasle eta ikertzailea: % 63,75; 32 ordezkari egokituko zaizkio.

Gainerako irakasle eta ikertzaileak: % 3,75; 2 ordezkari egokituko zaizkie.

Ikasleak: % 20; 10 ordezkari egokituko zaizkie.

Administrazio eta zerbitzuetako pertsonala: % 12,5; 6 ordezkari egokituko zaizkie.

3. artikulua.– Ikastegien arautegi markoaren 12.2 artikuluekiko komunztadura.

2.– Honako hauek izango dira akademia antolakuntzarako eta baliokidetzetarako batzordeko osakideak, emakume eta gizonen arteko oreka mantentzen ahaleginduta: dekanoa edo berau ordezkari dezakeen pertsona, bere buru izanik; ikastegiko idazkari akademikoa, bertako idazkari gisa jardunen duena, 5 irakasle (4 zuzenbidekoak eta bestea kriminologiakoa) eta ikasleen ordezkari bat. Ez da beharrezkoa izango ikastegiko batzarreko kidea izatea beste batzorde horretakoa izateko.

4. artikulua.– Ikastegien oinarrizko arautegiko 14. artikuluekiko komunztadura.

1.– Euskara batzordea parte-hartze eta aholkularitza-organoa izango da. Haren helburua fakultatean euskararen erabilera bultzatu eta bermatzea izango da, UPV/EHUren plangintza orokorrari jarraiki, unibertsitateko euskara batzordearekin eta campusetako euskara batzordeekin koordinatuta.

2.– Pertsonal irakasle eta ikertzailearen 5 ordezkari, 2 ikasle eta AZPkoen ordezkari batek osatzen dute. Fakultateko euskararako dekanordea izango da batzordearen burua. Batzordeko idazkari arituko da batzordea eratzen denean horretarako izendatzen den pertsona.

5. artikulua.– Ikastegien Oinarrizko Arautegiko 5.2.1) artikuluekiko komunztadura.

Oinarrizko arautegiak genero berdintasunaren inguruan 5.2.1) artikuluan jasotakoa garatzeko xedez, berdintasuneko batzordea eratuko da. Batzordeak bere gain hartuko ditu aipatutako arloaren barruan ikastegiari dagozkion eginkizunak, unean-unean aplikatu beharreko arautegiarekin bat etorrira. Batzorde hau dekanook edo berau ordezkari dezakeenak, pertsonal irakasle eta ikertzailearen bost ordezkari, ikasle batek eta administrazio eta zerbitzuetako pertsonalaren ordezkari batek osatuko dute.

6. artikulua.– Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 18.4 artikuluekiko komunztadura.

4.– Dekanoa izateko hautagaitza aurkezterakoan, gobernu taldearen egitura eta programa ere aurkeztu beharko dira eta lehenespena ezarriko da taldeko kideen artean, hala beharko balitz, dekanoren balizko ordezkapena egin ahal izateko.

7. artikulua.– Ikastegien arautegi markoaren 17.1 artikuluekiko komunztadura.

1.– Kide anitzeko organoko kide izatea norberari dagokion ezaugarria da eta ezin da beste inoren gain utzi, estatutuen 166. artikuluan aipatutako arrazoiengatik gal daitekeelarik. Kide izateari utziko dio bilera ohikoetara justifikazio gabe huts eginez gero, eta hain zuzen ere elkarren segidako lau bileratara edo txandakako sai bileratara justifikatu gabe huts eginez gero.

8. artikulua.– Ikastegien Oinarrizko Arautegiko 19.2. artikuluekiko komunztadura.

2.– Batzarreko kideek botoa eskuordetuko ahal diete beste batzarkideei. Kide anitzeko organoko kideek, gehienez, boto bakar bat izan dezakete eskuordetuta. Organoko kideek idatziz adierazi behar dute botoa eskuordetu egin dutela, eta idatzi hori bilerako aktari erantsiko zaio.

Organoak eratzeko quorumari dagokionez, ez dira kontuan hartuko eskuordetutako botoak.

Dekanoaren hauteskundeen kasuan, ezin eskuorde daiteke botorik.

9. artikulua.– Ikastegien Oinarrizko Arautegiko 23.2 artikuluekiko komunztadura.

2.– Hartutako erabakiak iragarki eta erabakien ohoan emango dira argitara, gehien dela hiru egun baliodunen epean. Organoko idazkariak eta buruak bermatu egin beharko dute bileran hartutako erabakiak argitaratu egiten direla eta gutxien dela hilabete daudela jendaurrean; izan ere, hilabetekoa izango da errektoregoari errekurtsioa aurkezteko epea. Erabakien zerrenda posta elektronikoaren bidez eta fakultatearen web atariaren bidez jakinaraziko zaie fakultateko kide guztiei, datuen babeserako indarreko arautegia beti ere errespetatuz.

10. artikulua.– Kalifikazio epaimahaiak.

1. eta 4. deialdietarako kalifikazio epaimahai espezifikokoak sortuko dira ikasleen ebaluaziorako arautegian aurreikusitako kasuetan.

11. artikulua.– Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 4.2 artikuluekiko komunztadura.

Hautetsiak kargua uzten duenean zerrenda bereko hurrengo kide ez-hautetsiak beteko du haren lekua. Ordezkapena zazpi egun iragan aurretik gauzatuko da, idazkariari jakinarazi zaionetik kontatzen hasita.

12. artikulua.– Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 4.3 artikuluekiko komunztadura.

Kide anitzeko organoko titularra kanpoan edo gaixorik dagoenean eta, oro har, bertan ez dagoenean arrazoi justifikaturen bategatik, behin-behineko ordezkokoak beteko du haren lekua. Ordezkapena gauzatzearren, kide titularrek kanpoan egotearen dokumentazio justifikagarria aurkeztu beharko du, ikastegiko idazkaritzan, organoaren bilera egin baino 48 ordu lehenago.